

URRETXU / ' Erloju lehorrak ' ikuskizuna eskainiko da liburutegian

URRETXU. DV. Gaur osteguna, maiatzaren 18an, arratsaldeko zazpitan, Urretxuko Liburutegian, Erloju lehorrak ikuskizuna izango da Liburutegian, Urretxu- Zumarragako herriek Liburuak Plazara ekitaldiaren barnean antolatutako. Mikelazulo K. E. eskutik dator eta parte hartzaileen artean bi lagunak dute harreman berezi bat Urretxurekin. Alde batetik Oier Guillan, textuen egileak ahotso ematen dio oraingo ikuskizunari, Iparragirre Saiaren azkeneko edizioan irabazle izan baitzen euskaraz. Bestetik Idoia Beratarbide oiartzuarra dago, eskenografiaren eta pinturaren egilea da, hain zuzen ere. Idoiak, Urretxu-Zumarraga herriak 2003an antolatutako pintura lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen.

Erloju lehorrak ikuskizunean poesia, musika eta pinturak egiten dute bat. Ekimen honen bidez sormenaren arloan lanean diharduten hiru pertsona elkartu dira, beren momentuko kezkak gidoi batean islatu eta norberaren adierazteko moduaren bidez (musika, pintura, hitza...) elkarlanean oinarritutako ikuskizun bat osatzeko.

Hari nagusiak bere bizitzan krisian egonik parentesi baten barruan bizitzea erabaki duen pertsonaren istorioa kontatzen du. Parentesitik parentesira egoera ezberdinetan dauden pertsonaien bizitzetan sartu eta denboran zehar bidaia egingo du pertsonaiak. Ikuskizun honetan bizitzan nahita edo nahi gabe denbora gelditzeko egiten ditugun saioen berri ematen da, bizitza guztiz pasa baino lehen une bakoitzaren jabe izan nahirik nolabait.

Horretarako poesia eta kontakizun txikien bidez pertsonaia ezberdinen ahotik entzungo ditugu bizipenik ustez xumeenak gorde dezaketen poetikotasuna, umoreari uko egin gabe, kaleko jendeak bere eguneroko bizimoduan islatu dezakeen eromen ukitua agerian utzi nahirik.

Momentuaz jabetzeko ahalegin horren isla izango dira halaber ikuskizunean zuzenean entzun ahal izango den musika eta ikusi ahal izango den koadroaren marrazketa.

Edukiaren azalpena

Denborarekin adina, adinarekin ametsak, eta denbora nahiz adina zenbakietan gora elkartzean ametsak lausotzeko arriskua. Gai horrek bultzaturik sortu dute Erloju lehorrak proiektuko hiru kideek gidioa.

Erloju lehorrak ikuskizunak denbora sormenaren bidez oratu nahiari erantzuten dio, une batez denbora gelditzeko nahiari, nahiz eta beti galtzaile atera. Ba omen da adin muga bat zeinean ametsaz hitz egitea ere gaizki ikusia izandaitekeen... Funtsean egunerokotasunak kaleko jendearengan sortzen dituen inflexio puntuetaz mintzo da poesiaz osatutako gidioa: bizitzak eskainitako erronkak sormenaren bidez, amesteko gaitasunari uko egin gabe, gainditu ahalizateko aldarrikapena, gogoia.

Sentimendu hori dago gidoiaren oinarrian, eta sormenak koadroa, baxua, papera gainditzeko dueneko sinesmena ere. Horregatik unez uneko sentimenduen arabera koadroa osatzen den neurrian, musikak eta poemak bat egiten duteneko uneen artetik, kaleko jendearen hainbat bizipenen berri emango da.

Adin eta izaera ezberdineko hamaika pertsonaia izanen dira hauek, beti ere gogoeta egiteaz gain umorearen bidez publikoarekiko gertutasuna bermatu nahirik.